



**Berritzeguneak**  
Vitoria-Gasteiz



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Prestakuntza eta Hezkuntzaren  
Berrikuntza Laguntzeko Zentroak



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Centros de Apoyo a la Formación e  
Innovación Educativa

DC1002e

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	9-01-04

## 1.1. ZENTROAREN DESKRIBAPENA ETA HISTORIA

Laurogeiko hamarkadaren erditsuan, Administrazioak hezkuntza komunitateak Hezkuntza Laguntza Zerbitzuen sortzearen beharrekiko zuen sentimenduari jaramon egin zion. Hura Europako gainerako estatuetan bazegoen baina Espainako Estatuan erabat berritsua zen zerbeit zen.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Departamentuak Orduan **Aholku eta Baliabideetan Taldeak** deitu ziren haiek sortzeko erabakia har zezan hainbat arrazoi batera gertatu ziren: [CAR/ABT]:

- Oso gutxi zehaztturiko funtzioak zituzten eta nahikoa barreiatuak zeuden beste zerbitzu batzuk bateratzearen beharra.: Talde Multiprofesionalak, Euskarazko koordinatzaile Taldeak, Coordinación de euskera,...
- Gure Elkarte Autonomoan ugaritzen ziren esperientzi, jardunaldi, formakuntza planak eta antzerakoan jarraipena eta orokortzearen beharra.
- Ikastetxeei baliabide didaktikoen eskeintza eta ikastetxeetan bazeuden baliabideen gauzatze didaktikoarekiko laguntzaren ematea.
- Gizartearen bilakaera berak ikastetxeetan sortu arazten zituen erroka berri desberdinei erantzutea : eskola antolamendua, eskola porrota, elebitasuna, gizarte arazoak, teknologi berrearen agerpena....

Egoera guzti hauek CAR/ABT deiturikoen, hezkuntza komunitatearen laguntzarako guneak izango ziren heinean, hainbat kontu aurrera eramateko bidea zabaltzen zituztela pentsarazi zuten: esperientziak bideratzerakoan, zerbitzuak koordinatzerakoan, prestakuntza zein berrikuntza ekintzak antolatzerakoan, besteak beste eta ahaztu barik ikastetxeetan bertan bai beren ezaugarriengatik bai beren prezio altuengatik eduki ezingo ziren baliabideak bertan horni zitezkeenik. Profesional zein material ikuspuntutik elkar-lanerako giro aproposa ematen zuten guneak ziren.

Xede hauekin, 1984ko urrian (27/7/1984ko Agindua) Elkarte Autonomoko hiru lurralde historikoetan sei zentru jarri ziren abian. Araban, hiru lerro nagusi helbu zituen aurreneko bat (Adiano VI kalean kokatua) zabaldu zen: Berrikuntza (Zientzia esperimetalak eta MAV), Integrazioa (Talde Multiprofesionala) eta Euskalduntzea (Euskara Koordinatzailea). Hiru taldek Zuzendaritza baten koordinatuta zeuden eta dokumentazioa eta baliabide didaktikoen mailegutza rematzen Vitoria-Gasteizko Udaleko pertsonalaren laguntzarekin.

1985-1986 ikasturtea hasi eta lehen López de Torre ikastetxea izan zen eraikinean Zaramaga auzoan)kokatua eta Arabako lurraldearen hegoaldea atenditzeko(bigarren zentru bat abian jarri zen. Ikasturte hartan zehar CAR/ABT-en plantillak Berritzatze lerroaz arduratzeko (ingurune, orientabidea eta informatika esparruen arduradunak, alegia) areagotu egin ziren. Bi zentru hauek hiru ikasturte gehiago zonaldeetan planteaturiko beharrak atenditzen eman zituzten, batzutan baloitza bere aldetik eta beste batzutan era amankomunean baina beti bion artean koordinaturik hura baitzen erarik hoberena sortuak izan zireneko helburuei heltzeko bidea.

Hezkuntza Departamentuak, lau ikasturte haietan barrena garaturiko lanaren eginiko ebaluazioaren medio, Laguntza Zerbitzuen birmoldaketa bat beharrezkotzat jo zuen, bai azpiegituran eta bai funtzionamendu alorrean, beti gizarte eredu eta hezkuntza komunitate berriek eskatzen zituzten baldintza berrietara egokitu nahian.

1988ko irailean, Vitoria-Gasteizko Udalak Fray Zacarías kalean duen eta horretarako egokitu zuen eraikin batean, **Centros de Orientación Pedagógica - Pedagogi Aholkularitza Tegiak [COP/PAT]** deiturikoak abian jarri ziren.

Aldi berean eta Euskal Elkarte Autonomoko beste 20 tokitan, Laguntza Zerbitzuen bigarren ekinaldi honek hasiera ikusi zuen Komunitateko zonalde guztietara atentzioa osatuz. Bitartean, zona-dimentsioa hazten zen, eskeinitako zerbitzuen kopurua haziz. Gure Lurraldean biek eraikin bera konpartitzeak koordinazioa eta bai barruko alorrean zein



**Berritzeguneak**  
Vitoria-Gasteiz



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Prestakuntza eta Hezkuntzaren  
Berrikuntza Laguntzeko Zentroak



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Centros de Apoyo a la Formación e  
Innovación Educativa

DC1002e

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
0	9-01-04


ikastetxeetan garaturiko eskuhartzeetan amankomuneko ekintzak abian ipini ahal izatea lagun zuen nabarmenki .

Laguntza Zerbitzu berri hauen ezarpenak lehengo CAR/ABT-ek hasitako lana irmotu zuen. Irakasleriaren parte-hartze mailak gora egin zuen nabarmenki, ohartu zena bai formakuntza ekintzetan zein ikastetxeetan garaturiko berriztatze ekintzeta nola baliabideen mailegutzan.

1989ko hastapenetan COP/PAT-ak eraikinez aldatu ziren berriro : Gasteizko Hiribiden dagoen haur hezkuntzako eraikin bat egokitu zen non Arabako Pedagogi Aholkularitza Tegi biak kokatu ziren. Hurren zegoen LOGSE deituriko legearen ezarpenak euren egitura indartzea ekarri zuen curriculumarenkularitza eramateko ardura zuten hainbat kolaboratzaile erantsiz. (Formakuntza Plan Intentsiboa zelakoa). Handik aurrera COP/PAT-ak erreformaren ezarpanaren erreferente nabari bihurtu ziren eta hori erreforma horren Alberdi desberdinetan: *aholkularitza, prestakuntza, esperientzien elkar-trukaketan, baliabideen ekarpena* eta abarrekoak. Hezkuntza Erreformaren edukin eta printzipioetan irakasleriaren murgilketa helburu zuen PIF-a deiturikoan bidez aholkulariek zuten ikastetxeetan etengabeko presentziak erreformak bultzatu nahi zuen ikaste-irakaste prozedurekiko hausnarketa sakona ekarri zuen. Tutoreta-lan hau, lau ikasturteetan zehar, oso garrantzitsua izan zen, ikastetxeetan lan taldeen bidezko lan-kultura bultzatuz eta ikastetxeetan formakuntza ekintzak sortuz. Hezkuntza Departamentuaren ekimen honen esku ikastetxeetan hain harrera ona eduki zuen Ikastetxeko Prestakuntza\_Proiektuak eta Hezkuntza Berriztatze Proiektuen deialdia etorri zen.

90-ko hamarkadan zerbitzu hauen benetako finkapena izan zen: ekintza plangitza zabala, ikastetxeetan etengabeko eta oso ondo baloratutako presentzia, ekintza eta eskuhartzeen kopuru izugarri altua, esperientzien bultzatze iraunkorra, eskeinitako baliabide didaktikoen eta euren erabiltzaileen tamaina gero eta handiagoa,... Helburuak lortuz joan zen baina gure gizarteak aldaketak eta egokitzapenak exijitzen zituzten beste behar batzuk eskatzen zituen: genero eta hezkidetzaren perspektiba, kulturartekotasuna eta zeharrakako baloreak, kalitatea eta hezkuntzaren hobekuntza, elkarbizitza, informazioaren gizarten murgildura,... Giza ingurune honi jaramonik eginez Hezkuntza Departamentuak programa batzuetan oinarrituko ziren Ildo Nagusi batzuk bultzatzea erabi zuen eta horrek Laguntza Zerbitzuen beste birmoldaketa bat ekarri zuen.

Honela, 2001ko apirilean **Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntza Laguntzeko Zentroak (BERRITZEGUNEAK)** abian jarri ziren non ohizko hezkuntza premia bereziko eta arloko aholkularitzetza gain bai Berrikuntza programak xede zuten eta bai hezkuntza etapa desberdinak atenditzen dituzten beste aholkularitza berri batzuk sortu ziren. Azpiegitura berria eta Euskal estola Publikoaren Legetik egozten zen aholkularien egoera administratibo berri batetan oinarriturik, 2001ko irailean Berritzegune hauen ibilaldia hasi zen. Aurreneko seiurtekoan zehar lorturiko eskarmentuak bultzaturiko agokitzapen batzuen ostean, 2007. urtean zehar etapako aholkularitzak indartu nahi zuen berrantolatze bat gauzatu zen, etapako aholkularitza hauek Hezkuntza Departamentuak lehensturiko ildo eta programak bultzatzearen ardura hartuko zutelarik.

- Dekretua berritzeguneak  [sortzen](#) dituen (2001)
- Dekretua berritzeguneetako [LZ](#) onartzen duena (2001)
- Dekretua Launtza Zerbitzuetako [hizkuntza eskakizunak](#) finkatzen dituen (2001)
- Agindua [funtzionamendua](#) eta [antolamendua](#) arautzen dituen (2001)
- Dekretua [egitura, funtzionamendua](#) eta [antolamendua](#) arautzekoa (2009).
- Dekretua berritzeguneetako [LZ berria](#) finkatzen duena (2009)